

Irakurle Digitala



Eskuliburua



Aurkibidea

1. Sarrera.....	2
2. Instalazioa.....	4
2.1. Banaketari buruzko oharra.....	4
2.2. Instalazioa.....	5
2.2.1. Firefox.....	5
Ordenagailuan.....	5
Gailu mugikorretan.....	8
2.2.2. Chrome.....	12
Ordenagailuan.....	12
Chrome OS-n, Chromebook-etan, Android-en.....	14
3. Erabilera.....	15
3.1. Jarraibide orokorrak.....	15
3.1.1. Irakurle Digitala irekitzen.....	15
3.1.2. Irakurle Digitala mugitzen.....	18
3.1.3. Laguntza eta informazioa.....	19
3.1.4. Aukerak.....	20
Hizkuntza.....	21
Ahotsa.....	21
Abiadura.....	21
Irakurketa mota.....	21
3.1.5. Testua irakurtzen eta nabigatzen.....	22
3.2. Webguneak.....	25
3.3. PDF-ak.....	27
3.3.1. PDF-ak irekitzea.....	27
Onlineko PDF-ak.....	27
Lokaleko PDF-ak.....	29
3.3.2. PDF-en berezitasunak.....	34
3.4. Ofimatikako dokumentuak.....	38



1. Sarrera

Irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei bere irakurketa-idazketa prozesuan laguntzeko tresna bat da [Irakurle Digitala](#). Bereziki dislexia dutenentzat pentsatuta badago ere, bestelako arazoak (ikusmen urritasuna edota hizkuntzari lotuko nahasmenak, besteak beste) dituzten ikasle askorentzat ere lagungarria izan daiteke. Oro har, testua eta ahoskera uztartzeko ariketak prestatzeko baliagarria da.

Ikasleek landu behar dituzten testuak tresna honen bidez entzun ahal izango dituzte. Testuak esaldiz esaldi hizketa bihurtzen dira automatikoki, [Elhuyarrek eskaintzen duen onlineko hizketa-sintesi zerbitzua](#)ri esker.

Testuak **euskaraz**, **gaztelaniaz** zein **ingelesez** egon daitezke, eta sistemak testuari dagokion hizketa sintetikoa sortuko du, tonu eta doinu naturalarekin eta hizkuntza bakoitzari dagokion ahoskerarekin.

Ahalik eta plataforma gehienetan ibili ahal izateko, Irakurle Digitala [Mozilla Firefox](#) eta [Google Chrome](#) nabigatzaileentzako **hedapen banaren** forman banatzen da. Hedapenak erabiltzailearen gailuko nabigatzailean instalatzen dira, **istema eragilea edozein izanik** (Linux, Windows, Mac, Android, Chrome OS...).

Era berean, ahalik eta dokumentu mota gehienekin erabili ahal izateko pentsatuta dago Irakurle Digitala: **webguneak**, **PDF-ak** zein **ofimatika testuak** (LibreOffice, Microsoft Word...) irakurtzeko balio du.



[Irakurle Digitala](#) [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Berritzegune Nagusiko Eskola Inklusiboko taldearen](#) entzatzat [Elhuyar Fundazioko hizkuntza teknologien sailak](#) garatutako tresna bat da. Hizketa-sintesia [Elhuyarren onlineko hizketa-sintesi zerbitzua](#) ren bidez egiten da, eta [Euskal Herriko Unibertsitateko Aholab taldearen AhoTTS](#) sisteman oinarrituta dago.



2. Instalazioa

2.1. Banaketari buruzko oharrak

Irakurle Digitala ez da ohiko banaketa bideen bidez modu irekian banatzen, hau da, ezin da [Firefox](#) edo [Chrome](#)-ren hedapenen biltegietan bilatu eta instalatu. **Irakurle Digitala eskuratzeko, [Berritzegune Nagusiak horretarako prestatu duen orriaren bidez](#) egin behar da.** Bertan gure datuak sartu ondoren, Irakurle Digitala instalatzeko fitxategiak eta argibideak eskuratzeko ditugu.

Hau horrela egitearen arrazoia da Irakurle Digitalaren zabalkunde kontrolatu eta apur bat mugatua egin nahi dela. Izan ere, Irakurle Digitala Euskal Herriko hezkuntza-sistemako ikasle eta irakasleek balia dezaten garatu da, bereziki euskarazko honelako tresnen hutsunea betetzeko. Baina ingelesez eta gaztelaniaz ere funtzionatzen duenez, irekia utziz gero, hasierako asmotik eta esparrutik haragoko erabilera zabalago bat izateko aukera dago. Irakurle Digitalak Elhuyarren onlineko hizketa-sintesi zerbitzua baliatzen du, ahalmen jakin eta mugatu batzuk dituen. Erabilera masibo batek zerbitzu hori mantsotu eta kaltetu dezake, jatorrizko helburu diren euskal erabiltzaileentzat Irakurle Digitala erabilezin bihurtzeraino.

Irakurle Digitala deskargatzeko eskatzen diren datuak estatistiketarako eta erabilera-datuak ezagutzeko soilik erabiliko dira anonimoki. Ez da horien araberako mugatze edo baimentzerik egingo, ezta bestelako inongo erabilerarik egingo. Posta elektronikoko helbidea erabiltzaileei eguneraketan berri emateko baliatuko da.



2.2. Instalazioa


Goian aipatu bezala, Irakurle Digitala instalatzeko, lehendabizi [Berritzegune Nagusiak horretarako prestatu duen orrian](#) gure datuak sartuko ditugu, eta horrela Irakurle Digitala instalatzeko fitxategiak eta argibideak eskuratuko ditugu.

2.2.1. Firefox


Ordenagailuan


Firefox-en Irakurle Digitala instalatzeko, **.xpi luzapena duen fitxategi bat** izango dugu; adibidez, lehenengo bertsioan, fitxategi hori `bn_irakurle_digitala-2.0.1-fx.xpi` deitzen da, hurrengo bertsioetan zenbaki horiek handituko zaizkio. Fitxategi hori gure ordenagailuan dugula, ondoko urratsak jarraituko ditugu:


- Ireki Firefox nabigatzailea




- Ireki menua () eta aukeratu “Gehigarriak” ( Gehigarriak)




- Ireki “Tresnak” () eta aukeratu “Instalatu gehigarria fitxategitik...”




- Deskargatutako `bn_irakurle_digitala-..-fx.xpi` fitxategia aukeratu



- Baimena eman **“Gehitu”** sakatuz



- **Kito**, instalatuta dago!






Gailu mugikorretan


Gure **gailu mugikorreko Firefox-en** Irakurle Digitala instalatzeko, aurreko **.xpi fitxategi bera** behar dugu, adibidez `bn_irakurle_digitala-2.0.1-fx.xpi`. Fitxategi hori ireki beharko dugu Firefox erabilia, honela:

- Ireki fitxategia zuzenean **postatik “Ireki”** botoiaren bidez...




informazio hori baimenik gabe erabili, hedatu eta/edo kopiatzea. Mezu hau errakuntza baten ondorioz jaso baduzu, jakinarazi bidaltzaileari, eta ezaba ezazu. Eskerrik asko.

Ez inprimatu mezu hau ezinbestekoa ez bada.







- ...edo fitxategia gorde edo deskargatu ondoren, **ireki Fitxategiak** programarekin “**Deskargak**” karpetatik




- Zein programarekin ireki nahi dugun galdetzen badigu, **aukeratu Firefox**
- Baimena eman “**Baimendu**” sakatuz



- **Kito**, instalatuta dago!






2.2.2. Chrome


Ordenagailuan

Chrome-n Irakurle Digitala instalatzeko, **esteka bat** jasoko dugu; adibidez, lehenengo bertsioan, esteka hori <https://chrome.google.com/webstore/detail/bn-irakurle-digitala/ghoelhkebapmnednkjfenhbpaohbpgkj> da, baina hurrengoetan beharbada alda liteke. Esteka hori Chrome-n ireki beharko dugu, honela:


- Ireki Chrome nabigatzailea




- Ireki bertan goian aipatutako esteka eta “Añadir a Chrome” sakatu




- “Añadir extensión” aukeratu



- Ez aukeratu “Activar sincronización” eta itxi leihoak



- **Kito**, instalatuta dago!



Chrome OS-n, Chromebook-etan, Android-en

Prozedura bera erabiltza instalatu daiteke **Chrome nabigatzailean beste edozein gailu eta sistema eragiletan**: Chrome OS-n, Chromebook gailuetan, Android-en...



3. Erabilera

3.1. Jarraibide orokorrak

Irakurle Digitalak web nabigatzailean ireki daitekeen edozein dokumentu (**webguneak, PDFak eta ofimatika testuak**) hizketa bihurtu eta **irakurtzen dizkigu**, horrela dena delako arrazoiengatik (dislexia, ikusmen urritasuna, hizkuntzari lotuko nahasmenak...) irakurtzeko zailtasunak dituen ikasleari bere ikasketa prozesuan lagunduz.

Irakurle Digitalak funtzionatzeko **behar-beharrezkoa** da gailuan **Interneteko konexioa** izatea, testuak hizketa bihurtzeko prozesua Elhuyarren web zerbitzu batean egiten baita. Irakurle Digitalak irakurri beharreko testuen esaldiak bidaltzen dizkio zerbitzu horri, eta honek esaldi horiei dagozkien audio fitxategiak itzultzen ditu Irakurle Digitalak erreproduzitu ditzan.

Irakurle Digitala **Firefox edo Chrome nabigatzaileetan hedapen gisa** instalatzen da. Beraz, berau erabili ahal izateko nabigatzaile horietako bat behar da eta bertan Irakurle Digitalaren hedapena instalatzea gorago aipatutako prozesua jarraituz.

3.1.1. Irakurle Digitala irekitzen


Irakurle Digitala gure **nabigatzailean** instalatuta dugula, bertan **irekiko dugu irakurri nahi dugun webgunea edo dokumentua**. Webguneak eta onlineko PDF-ak helbide-barran helbidea sartuta irekiko ditugu, gure gailuan gordeta ditugun PDF-ak




nabigatzailean irekitzeko esanda eta **ofimatikako dokumentuak** (LibreOffice, RTF, Microsoft Word...) **Google Docs kontu batean kargatuta** eta han dokumentua irekita.

Behin dokumentua nabigatzailean irekita, **Irakurle Digitalaren botoia** edo aukera sakatuko dugu:






Horrek Irakurle Digitalaren barra irekiko du orriaren goiko aldean:






Irakurle Digitala irekitzeari ematen diogunean, honek orria azertu eta irakurtzeko prestatzen du. Horregatik, orria oso luzea edo konplexua bada, eta gure gailuaren ahalmenaren arabera, barrak apur bat tardatu dezake agertzen.



3.1.2. Irakurle Digitala mugitzen



Irakurle Digitalaren barra, berez, orriaren edukiaren gainean jartzen da, bere zati bat estaliz. Atzekoa ikusten uzteko, barra erdi-gardena da, sagua bere gainean jarri edo klik egitean opaku bihurtzen da.



Oztopatzen duen zatiaren arabera, **barra orriaren goiko partean** egon daiteke **edo behean**. Horretarako **“Behera/Gora” botoia** daukagu.



Dena delako arrazoiagatik **barra itxi** nahi badugu, eskuineko “**Itxi**” botoia erabil dezakegu **edo irekitzeko** baliatu genuen **botoi bera**.



3.1.3. Laguntza eta informazioa

Galdera ikurraren itxura duen “**Honi buruz**” botoian klik eginez gero, Irakurle Digitalaren **zer den eta teklatu bidez nola erabili** daitekeen azaltzen duen leiho bat agertuko da.

Laguntza

Irakurle Digitala Firefox eta Chrome nabigatzaileetarako plugin edo gehigarri bat da. Dislexia edo bestelako irakurtzeko zailtasunak (ikusmen urritasuna, hizkuntzari lotuko nahasmenak...) dituzten ikasleei bere irakurketa-idazketa prozesuan laguntzeko tresna bat da.

Ikasleek landu behar dituzten testuak tresna honen bidez beraiek irakurri beharrean entzun ahal izango dituzte. Testuak esaldiz esaldi hizketa bihurtzen dira automatikoki eta entzun egiten dira, entzuten ari den esaldia nabarmenduta. Nabigatzailean ireki daitekeen edozein testu irakurtzen du: webguneak, PDFak, ofimatika dokumentuak (Google Docs bezalako tresnaren batekin irekiz gero)...


Testuak euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez egon ahal izango dira, eta sistemak testuari dagokion ahots sintetikoa sortuko du, tonu eta doinu naturalarekin eta hizkuntza bakoitzari dagokion ahoarekin.

Irakurle Digitala **Elhuyar Hizkuntza eta Teknologiak** garatu du **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Berritzegune Nagusiarentzat**, eta **EHU/UPVko Aholab ikerketa taldearen AhoTTS** erabiltzen du.

Barrako botoiak teklatu bidez ere erabili daitezke, honela:

Hurrengo botoia: Tab	Aurreko botoia: Shift + Tab	Botoia sakatu: Enter	Itxi: Alt + Shift + Q
Laguntza: Alt + Shift + H	Gehigarriaren webgunera: Alt + Shift + I	Barra gora/behera bidali: Alt + Shift + T	
Hizkuntza: Alt + Shift + L	Ahotsa: Alt + Shift + V	Abiadura: Alt + Shift + B	
Hizkuntza/Abiadura/Ahotsa gora: Gora	Hizkuntza/Abiadura/Ahotsa behera: Behera		
Entzun/Pausatu/Jarraitu: Alt + Shift + P	Gelditu: Alt + Shift + S	Hasiera: Alt + Shift + C	Bukaera: Alt + Shift + E
Aurreko esaldia: Alt + Shift + A	Hurrengo esaldia: Alt + Shift + D	Aurreko paragrafoa: Alt + Shift + X	Hurrengo paragrafoa: Alt + Shift + W
Joan: Alt + Shift + J	"Joan"-ekin hurrengo esaldira: Tab	"Joan"-ekin aurreko esaldira: Shift + Tab	

Irakurlearen ikonoaren itxura duen botoian sakatuz gero, leiho edo erlaitz berri batean Irakurle Digitalaren webgunera eramango gaitu.




3.1.4. Aukerak

Irakurle Digitalak **hainbat parametroren** arabera irakurtzen du testua: **hizkuntza, ahotsa, abiadura eta irakurketa mota**. Testua irakurtzen hasi aurretik nahiz irakurtzen ari dela, barrako aukera-kutxen bidez alda ditzakegu defektuzko parametroak, nahi edo behar izanez gero.


Hizkuntza

Irakurri nahi dugun testuaren arabera, **hizkuntza hautatu** dezakegu **euskara, gaztelania eta ingelesaren** artean.




Ahotsa

Testua **zein ahotsekin** entzun nahi dugun aukeratu dezakegu, **gizonezkoarekin edo emakumezkoarekin**.



Abiadura


Testua irakurtzeko **abiadura** ere moldagarria da. Defektuz abiadura normal edo ertain batean irakurtzen du testua, baina azkarrago edo mantsoago irakurtzea ere aukera dezakegu.



Irakurketa mota

Batzuetan, eta erabiltzaileak testuak irakurtzeko dituen zailtasunen arabera, ez da nahikoa izaten testua testua mantso irakurtzea irakurleak ongi ulertzeko, eta lagungarria izan daiteke **testua hitzez hitz irakurtzea**. Hori egitea aukeratu dezakegu, hitzez hitzeko


irakurketa nahi dugula adierazita. Hala hitz bakoitza irakurri ondoren isilune txiki bat egingo da.



Hala ere, ordenagailuaren ahalmen, gaitasun eta lan-kargaren arabera, batzuetan hitzen arteko isiluneak ez dira egiten behar bezala eta hitza bukaera baino lehen moztu daiteke edo hurrengo hitzaren hasierako tartetxo bat sartu. Baina hau gutxiago gertatzen da irakurketa-abiadura mantsoenetan, eta normalean horrela erabiliko da ezaugarri hau.

3.1.5. Testua irakurtzen eta nabigatzen

Irakurle Digitalak testua irakurtzea nahi dugunean, “**Entzun**” botoia sakatuko dugu, erreproduzigailuetako “play” botoi baten itxura duena.



Hori egitean, testuan zehar nabigatu ahal izateko botoi gehiago dituen **barra erreproduzigailu bat zabalduko** da “Entzun” botoia zegoen lekuan.



Horrekin batera, orriko lehen **esaldia irakurtzen** hasiko da, esaldi hori **atzealde urdin argi batekin** nabarmenduz, eta ondoren beste esaldiekin berdin egingo du. Gainera, **unean irakurtzen ari den hitza ere atzealde more batekin** nabarmenduko du.



Azkenik, orain “Entzun” botoiak “pause” botoien itxura hartu du. Botoi hori erabiliko dugu irakurketa une batez gelditu nahi badugu eta baita ondoren jarraitzeko ere.

Testuaren zatiak saltatu nahi baditugu eta testuan zehar aurrera eta atzera ibili, hainbat botoik lagunduko digute horretan. Ondoko irudian markatu diren botoiek, hurrenez hurren, **lehenengo esaldira, aurreko paragrafora, aurreko esaldira, ondoko esaldira, ondoko paragrafora eta azken esaldira** eramango gaituzte. Hori egin dezakegu irakurketa martxan zein geldirik dela.



Hala ere, ziurrenik testuan zehar mugitzeko baliagarrien izango zaigun botoia “Joan” botoia izango da. Hori sakatuta, **orriko edozein esalditan klik egin** dezakegu



eta beratu aukeratuta geldituko da (**atzealde berdea** erakutsiko digu), eta ondoren “Entzun” botoia sakatuta hortik aurrera irakurtzen hasiko da.



Gizartea

MIGRATZAILEAK

'Aita Mari' ezin izan du gaur irten, aurreikusi zuten moduan

Itsasora irten ahal izateko, aurrena segurtasun proba batzuk egin behar dizkiote ontziari; atzo ziren egitekoak, baina Pasaiaiko Komandantziak baimena ukatu zien.



Berria



Gizartea

MIGRATZAILEAK

'Aita Mari' ezin izan du gaur irten, aurreikusi zuten moduan

Itsasora irten ahal izateko, aurrena segurtasun proba batzuk egin behar dizkiote ontziari; atzo ziren egitekoak, baina Pasaiaiko Komandantziak baimena ukatu zien.



Berria





Gelditzeko botoiarekin irakurketa geldituta ere orriko edozein esaldi aukeratu dezakegu hortik aurrera entzuteko. Eta lehen aldiz “Entzun” botoia sakatu eta erreproduzigailuaren botoien barra zabaldu aurretik ere berdin, edozein esalditan klik egin dezakegu hortik aurrera entzuteko.

Azkenik, “**Amaitu**” **botoia** daukagu. Honek irakurketa guztiz amaituko du eta erreproduzigailuko botoiak berriz ezkutatu, hasieran bezala “Entzun” botoia soilik bistan utziz, eta berriz entzun nahi izanez gero hasieratik hasiko da.



Testua guztiz irakurtzeaz amaitzen duenean automatikoki egiten da hori, hau da, erreproduzigailuko botoiak ezkututzen dira, “Entzun” botoia soilik uzten da agerian eta berriz “Entzun” botoiari emanda hasieratik hasten da.

Irakurle Digitalak orrian bistan dauden elementuak soilik irakurtzen ditu. Orriko atal batzuk ezkutatuta badaude (erlaitz sistema baten bidez, edo botoi bat sakatu behar delako atal bat ireki edo bistaratzeko, edo dena delakoa) ez dira irakurriko. Bistaratzen baditugu, orduan bai aukeratu ahal izango ditugu eta irakurri.

3.2. Webguneak

Irakurle Digitala webguneak irakurtzeko baliatu behar dugunean, berezitasun nagusia da **webguneek eduki nagusiaz gain** normalean **beste gauza asko** izaten dituztela: **goiburukoa, orri-oina, nabigazio menua...** Eta Irakurle Digitala horiek guztiak

irakurtzen hasten da, askotan nahi ez ditugun zatiak irakurriz eta irakurketa guztia mantsotuz. Hori ekiditeko, goian aipatutako metodoak baliatu ditzakegu:

- “Entzun” botoia sakatu aurretik edukiaren lehen esaldian klik egin, aukeratu eta hortik irakurtzen hasteko
- “Joan” botoia sakatu eta irakurtzera joan nahi dugun esaldian klik egin
- Irakurketa gelditu eta irakurtzen jarraitu nahi dugun esaldian klik egin
- Nabigazioko botoiak erabili: lehenengo esaldira, aurreko paragrafora, aurreko esaldira, ondoko esaldira, ondoko paragrafora eta azken esaldira

The screenshot shows the Berria website interface. At the top, there is a navigation bar with the Berria logo and various menu items like 'Gizartea', 'Politika', 'Ekonomia', etc. The main content area features a large headline: **'Aita Mari' ezin izan da irten, hala aurreikusi zuten arren**. Below the headline is a sub-headline: **MIGRATZAILEAK**. The article text begins with: **Itsasora irten ahal izateko, aurrea segurtasun proba batzuk egin behar dizkiote ontziari; atzo ziren horiek egitekoak, baina Pasaiaiko Komandantziak baimena ukatu zien.** There is a photo of the ship 'Aita Mari' with various logos and text on its side. To the right, there is a sidebar titled 'Gehien irakurriak' (Most read) with a list of three articles. At the bottom, there is a yellow banner with text: **Irakurtzen ari zaren edukia libre ematen jarraitu nahi dugu. Euskaraz informatzea da gure eginkizuna, zure eskubidea. Sareko irakurlea bazara, konprometitu zaitez irakurtzen ari zarenarekin. Geroa zugan.** and a button that says 'Izan zaitez BERRIAlaguna'.



3.3. PDF-ak

3.3.1. PDF-ak irekitzea

Firefox zein Chrome nabigatzaileek PDF dokumentuak ireki eta bistaritzen badituzte ere, ez dute uzten beraietan inongo aldaketarik egiten eta, beraz, Irakurle Digitalak ezin du zuzenean beraien gainean funtzionatu (ezin delako barra orriaren gainean bistaratu, esaldien koloreak aldatu eta abar). Beraz, **PDF dokumentuak Irakurle Digitalarekin funtzionatu ahal izateko, PDF dokumentuentzako bisore zerbitzu bat** prestatu du Irakurle Digitalaren garatzailea den Elhuyar Fundazioak. PDF bat bertan irekitzean, Irakurle Digitalarekin irakurri ahal izango dugu. Eta Irakurle Digitalak berak PDF-ak zerbitzu horretan irekitzearen prozesua ahalik eta gehien errazten eta sinplifikatzen du, ondoren ikusiko den bezala.

PDF bisorearen zerbitzura igotzen diren PDF-ak Irakurle Digitalaren bidez irakurtzeko soilik erabiltzen dira. Ez da horien kopiarik ezertarako gordetzen eta Elhuyar Fundazioak horien pribatutasuna bermatzen du.

Onlineko PDF-ak

Irakurle Digitalaren bidez irakurri nahi dugun PDF-a onlineko PDF bat bada, hau da, **webguneren batean eskegita dagoen PDF bat**, helbide-barran PDF dokumentuaren **helbidea sartuta irekiko** dugu, ohiko moduan. Orduan **Irakurle Digitalaren botoia** sakatzen badugu, ikusiko dugu nola **PDF-a leiho edo erlaitz berri batean irekitzen** den baina oraingoan beste helbide batekin (aipatutako PDF dokumentuen bisorearen helbidea,



zehazki). Bertan Irakurle Digitalaren barra jada irekita egongo da, eta normal erabiltzen hasi ahal izango gara.

e19_0162.pdf - Mozilla Firefox

e19_0162.pdf x +

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/dato

EHAA EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

www.euskadi.net 2019ko abuztuaren 28a, asteazkena 162. zk.

LABURPENA

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

AGINDUA, 2019ko apirilaren 25ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baitira «Fundación para la Formación Empresarial» izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketak.

4020

e19_0162.pdf - Mozilla Firefox

e19_0162.pdf x +

irakurledigitala.elhuyar.eus/PDF/viewer.html?file=h

Hizkuntza: Euskara Ahotsa: Gizonezkoa Abiadura: 92 Irakurketa: Jarraia

EHAA EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

www.euskadi.net 2019ko abuztuaren 28a, asteazkena 162. zk.

LABURPENA

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

AGINDUA, 2019ko apirilaren 25ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baitira «Fundación para la Formación Empresarial» izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketak.


4020







Lokaleko PDF-ak

Lokaleko PDF-ak, hau da, **gure gailuan gordeta ditugun PDF-ak**, irekitzeko prozesua apur bat **konplikatu**xeagoa da. **Bi modutara** egin dezakegu:

- **PDF dokumentua nabigatzailean ireki** ondoren, **Irakurle Digitalaren botoiari** emango diogu. Honek ere **PDF dokumentuen bisorea irekiko du** leiho edo erlaintz berri batean, baina dokumentua gabe. **PDF fitxategia non dagoen galdetuko** digu, hau ematean dokumentua irekiko du. Orduan, **berri ere sakatu** beharko dugu **Irakurle Digitalaren botoia** barra agertzeko, eta barra irekitzean normal erabiltzen hasi ahal izango gara.











- Beste modu honetara, aurreko metodoaren lehen pausoa aurreztu dezakegu, hau da, PDF dokumentua nabigatzailean ireki eta Irakurle



Digitalaren botoia sakatzearena. Horretarako, **zuzenean irekiko dugu nabigatzailean PDF bisorearen zerbitzua, <http://irakurledigitala.elhuyar.eus/PDF/viewer.html> helbidera joanda.** Honek **PDF fitxategia non dagoen galdetuko** digu, esango diogu eta behin ireki duenean, **Irakurle Digitalaren botoia sakatuko** dugu.







3.3.2. PDF-en berezitasunak

PDF-ak kudeatzea, orokorrean, ez da batere erraza izaten formatuaren berezitasunak direla eta. Aurkezpenerako pentsatuta dagoen formatua da, edozein ordenagailu eta inprimagailutan berdin ikus dadin, baina ez dago pentsatuta editatzeko. Ezin dira testu-prozesagailuen bidez editatu, ezin dira testu-prozesagailuen formatura bueltan bihurtu... Eta Irakurle Digitalarentzat ere ez da batere erraza formatu hau irakurtzea. Hainbat arazo gertatzen dira **PDF-ak irakutzean**, Irakurle Digitala ahalik eta hobekien konpontzen saiatzen dena, baina **batzuetan** ez da posible eta **gauza arraroak gerta daitezke**.

Lehenik, azaldu behar da PDF formatuak ez duela esaldi edo paragrafoen kontzepturik. Jatorrian testu-prozesagailuan paragrafo bat bagenuen hainbat lerrotan



banatzen zena, testu-prozesagailuak badaki paragrafoko lerroen artean jarraitasun bat dagoela. Adibidez, goian testua ezabatu edo gehitzean esaldi bateko hitzak goiko edo beheko lerroetara eramaten ditu. Edo testua zutabetan edo taulatan badago, badaki testuaren ordena zein den. Aldiz, PDF formatuan lerro bakoitza unitate independente bat da, kutxa batean dagoena, eta ez dago jakiterik esaldia kutxan amaitu den, edo beherago dagoen kutxan jarraitzen duen, edo eskuinerago dagoenean, eta abar. Horregatik, ez da erraza esaldiak osorik irakurtzea lerro bat baino gehiagotan banatuta badago. Irakurle Digitala saiatzen da asmatzen ea esaldi bat beste kutxa baten jarraitzen den (beherago eta nahikoa hurbil dagoelako, puntuaziorik ez dagoelako, minuskulaz jarraitzen duelako...), baina beti ezin da asmatu eta **batzuetan esaldi batzuk lerrotan banatuta irakurriko dira**. Bereziki, esaldi bat orri jauzi batekin banatuta dagoenean ekidinezina da hau.

Areago, testu-prozesagailuan letren artean espazio handia bazegoen (lerro bat justifikatuta dagoenean adibidez), PDF-an letra bakoitza kutxa batean ager daiteke, eta orduan agian hitz horiek letraz letra irakur ditzake Irakurle Digitalak.

Bestalde, PDF dokumentuan testu-kutxak ordena jakin batean agertzen dira, batzuetan ez dena logikoena. Adibidez, orri-oinaren kutxa batzuetan fitxategiaren hasieran doa, goiburukoaren kutxa amaieran... Hau da, ez du errespetatzen guretzat irakurketa ordena logikoa dena. Horregatik, **batzuetan Irakurle Digitalak ere horrela irakurriko ditu: orri-oinak orriko beste testua baino lehenago, orriaren goiburuko testua orriko beste testu guztiaren ondoren...** Hau ere ekidinezina da, zeren eta ordenarentzat PDF fitxategian dagoen ordena erabili beharrean kutxen koordinatu bertikal eta horizontalaren



arabera egiten saiatuz gero, zutabetan edo taulatan dagoen testua oso-oso gaizki irakurtzen da.

Horrez gain, nabigatzailean PDF-ak irekitzean ez dira osorik irekitzen, soilik pare bat orri, eta beherantz goazen neurrian joaten dira orri berriak kargatzen. Hori egiten dute PDF oso handiekin memoria alferrik ez erabiltzeko. Hau dela eta, Irakurle Digitalak ere ezin ditu hasieratik esaldi guztiak kargatu, eta bi orriz behin esaldi berriak kargatu behar ditu. Horregatik, irakurtzen ari dela **orri jauzi batzuetan denbora pixka batean gelditu egiten dela nabaritu dezakegu**, edo azken esaldira joateko esaten badiogu ikusiko dugu hurrengo orriko azken esaldira doala soilik eta gero jarraitu egiten duela.

PDF-ek duten beste gauza bat da esaldiaren atzealdeak batzuetan ez duela guztiz kointziditzen erakusten duen testuarenarekin, bereziki letra handiekin. Horregatik, **Irakurle Digitalak irakurtzen ari den esaldiaren atzealdea beste kolore batez markatzean, batzuetan ezkerrerago edo eskuinerago edo gorago edo beherago agertzen da, eta kolore argiagoz ere bai.**



e19_0162.pdf - Mozilla Firefox

e19_0162.pdf x +

irakurledigitala.elhuyar.eus/PDF/viewer.html?file=https://www.euskadi.e

Hizkuntza: Euskara Ahotsa: Gizonezkoa Abiadura: 92 Irakurketa: Jarraia

EHAA  **EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA**

www.euskadi.net 2019ko abuztuaren 28a, asteazkena 162. zk.

LABURPENA

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

AGINDUA, 2019ko apirilaren 25ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erre-distroan inskribatzen baitira «Fundación para la Formación Empresarial» izeneko

e19_0162.pdf - Mozilla Firefox

e19_0162.pdf x +

irakurledigitala.elhuyar.eus/PDF/viewer.html?file=https://www.euskadi.e

Hizkuntza: Euskara Ahotsa: Gizonezkoa Abiadura: 92 Irakurketa: Jarraia

EHAA  **EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA**

www.euskadi.net 2019ko abuztuaren 28a, asteazkena 162. zk.

LABURPENA

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

AGINDUA, 2019ko apirilaren 25ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erre-distroan inskribatzen baitira «Fundación para la Formación Empresarial» izeneko

Nabaritu dezakegun beste gauza bat da **batzuetan Irakurle Digitala PDF dokumentuan ez dauden esaldiak irakurtzen** hasten dela. Hori da esaldiak benetan dokumentuan daudelako, baina atzealde eta letra zuriz, eta horregatik ez ditugu ikusten. **Beste batzuetan, esaldi batzuk bi edo hiru bider irakurtzen dira.** Kasu hauetan ere,



benetan esaldi horiek behin baino gehiagotan agertzen dira fitxategian, baina koordinatu berean, eta horregatik ez dira ikusten. PDF dokumentu batzuetan horrelako testu ezkutatuak zergatik dauden ez dakigu, maketatzailen teknikak ote diren edo...



Azkenik, nabigatzailean PDF-ak irekitzean goiko aldean barra bat erakusten da (zoom-a, orrien nabigazioa, inprimatu...) eta Irakurle Digitalaren barrak PDF-aren barra ezkututzen du. Horregatik izan daiteke bereziki interesgarria barra beheko aldera eramateko botoia PDF-etan.

3.4. Ofimatikako dokumentuak

Irakurle Digitalak **ofimatikako testu-dokumentuak (LibreOffice, RTF, Microsoft Word...)** ere irakur ditzake, baina ez zuzenean, **zeharkako** bideak baliatuz baizik.


Zeharkako modu horietako bat dokumentuak testu-prozesagailuan ireki eta **PDF gisa esportatzea** da, eta orduan goian azaldutako PDF-ak irakurtzeko metodoa baliatu genuke. Hala ere, PDF dokumentuekin izaten diren goian aipatutako arazoak izango genituzke.

Beste modua **Google Docs baliatzea** da. Google konturik badugu, dokumentua **Google Drive-ra igo** dezakegu eta handik **Google Docs-en bidez ireki**. Orduan **Irakurle Digitalaren botoia** sakatua, barra agertuko da eta dokumentua irakurri ahal izango dugu.





The screenshot shows the Google Drive interface in Mozilla Firefox. The browser address bar shows the URL: <https://drive.google.com/drive/folders/1ffdAwwvcBvxKAXWsmTvhURQEysb5BweI>. The Drive interface shows a folder named 'Irakurle Digitala' containing a file 'Eskuliburua.odt'. A context menu is open over the file, listing various actions. The 'Google Dokumentuak' option is highlighted with a red circle. Other options include 'Aurrebista', 'Ireki honekin', 'Partekatu', 'Eskuratu parteka daitekeen esteka', 'Erakutsi fitxategiaren kokapena', 'Eraman hona', 'Gehitu izardunetan', 'Aldatu izena', 'Ikusi xehetasunak', 'Kudeatu bertsioak', 'Egin kopia bat', 'Eman erabilera okerren berri', 'Deskargatu', and 'Kendu'. The left sidebar shows navigation options like 'Berria', 'Nire unitatea', 'Nirekin partekatutakoak', 'Azkenak', 'Izardunak', 'Zaborrontzia', 'Babeskopiak', and 'Biltegia' (7,2 GB / 15 GB erabili dira).



Google Docs-en **webguneak goiburukoa, menua eta horrelakoak** ditu, baina **Irakurle Digitalak automatikoki ekiditen ditu**, zuzenean dokumentuaren edukia soilik irakurtzen du.

PDF-ekin gertatzen den bezala, Google Docs-ek ez ditu dokumentuak osorik irekitzen, soilik pare bat orri, eta beherantz goazen neurrian joaten dira orri berriak kargatzen. Hau dela eta, Irakurle Digitalak ere ezin ditu hasieratik esaldi guztiak kargatu, eta bi orritz behin esaldi berriak kargatu behar ditu. Horregatik, irakurtzen ari dela **orri jauzi batzuetan denbora pixka batean gelditu egiten dela nabaritu dezakegu**, edo azken



esaldira joateko esaten badiogu ikusiko dugu hurrengo orriko azken esaldira doala soilik eta gero jarraitu egiten duela.

Ofimatikako bestelako dokumentuak, hala nola **aurkezpenak (LibreOffice Impress, Microsoft PowerPoint...)** edo **kalkulu-orriak (LibreOffice Calc, Microsoft Excel...)** irakurtzeko, **PDF-arena da bide bakarra**, Google Docs-en bidez ezin dira formatu horretako dokumentuak irakurri.